

Bost hilabete dira eliza ondoko parkea zaharberritu zutenetik. Bertara joan ohi diren zenbait laguni parkea zer iruditzen zaien eta zerbait falta ote duen galdetu diegu.

Euria egiten ez badu behintzat, astegunetan, arratsaldean, eta asteburuetan jende asko elkartzeko da eliza ondoko parkean: gaz-

tetxo patin zaleak, jolastokian gora eta behera dabiltzan umeak eta beren gurasoak, edo besterik gabe, paseoan dabiltzan aiton-amonak.

Esertzeko lekurik ez

Maria Angeles Alonso bi seme-alabeekin joan ohi da parkera. Auzotar honen iritziz, "zalantzarik gabe, onerako izan da parkea berriro izana. Argi dago jendea gustura etortzen dela hona. Arratsaldeko 17.00etan, esaterako, ez dago ia eserleku bat bera ere hu-

tsik. Gehiago jarri beharko litzukete". Horrez gain, parkearen behealdeko urmaelak garbitu beharra nabarmendu digu Maria Angelesek: "Haurren bat urmaelen batean erortzen bada, ez zaio ezer larrikerik gertatutako. Gurasoak, hala ere, nahiago dugu umeak uretara gehiegi ez hurbiltzea, zikin-zikina dago eta".

Iñaki Blancok ere gogoko du parkea, "oso zabala delako; umeentzako, gaztetxoentzako eta gurasoentzako gunea daude. Eta, are garrantzitsua goa dena, ia edozein lekutatik parke osoa ikus daiteke". Hori bai, haurrentzako jolastokia txikiegia dela uste du Iñakik: "Gurasoak, ume-kotxeekin, bertara sartzen garenean, ia ez dago lekurik".

Beste auzoetatik

Kanpoko jendea ere etorri ohi da parkera. Pasai San Pedroko Silviak seme txikia parkera eraman ohi du, Bidebietan bizi diren aiton-amonak bisita egitera etortzen direnean. "Parkea nahikoa ondo dago. Pasai San Pedron ez dago halakorik", dio Silviak. Intxaurrendoko Ana bi seme-alabeekin


Bidebietako kiroldegira etorri ohi da, eta kirola egin ondoren parkera joaten dira hirurak. "Asko gustatzen zait parkea. Haurrek primeran pasatzen dute. Zaharrenari ura gustatzen zaio gehien eta txikiak ezinhobe pasatzen du jolastokiko pirata ontzian. Gainera, parkeko harrizko mahaitxoak primeran datozkit seme txikiari bazkaria emateko. Hori bai, taberna falta da. Intxaurrendoko Zaharreko parkean bada taberna bat, eta asko eskertzen dugu", dio Anak.

Patinatzeko aukera ere badago parkean. Unai Zabalegi gaztetxoak noizean behin joaten da bertara, lagunekin iristailuen gainean ibiltzera. "Patinatzea gustuko dut, baina parkea zaharberritu aurretik, Anoetako skate-parkera joaten nintzen. Auzoan bizi naizenez, parkera etortzen naiz orain", azaldu digu Unai.

Bistan denez, zaharberritutako parkeak harrera ona izan du auzotarren artean, eta baita ingurumarietatik datorren jendearen artean ere. Hori bai, mintzatu zaizkigun lagunek urmaeletako ura garbitu beharra, umeen jolastokia batzuetan txiki geratzen dela eta taberna bat jar litekeela aipatu digute. Horra hor, beraz, aintzat hartu beharreko proposamenak.



Elizaren atzealdean patinatzeo gunea dago.



Urmaeletako ura zikin dagoela diote gurasoek.